indarrean dauden arauei jarraituz ezin baitira kontuan hartu aurreko edo geroagoko ekitaldiak. Izan ere, errekurtsogileak legez ezarritako gutxieneko diru-sarreren eskakizuna betetzen ez duenez, ezin da sustapen honetan sartu eta ezetsi egin behar da aurkeztutako errekurtsoa.

Azaldutako oinarriak, aipatutako legezko xedapenak eta horiekin bat datozen eta osagarri diren gainerako xedapen aplikagarriak ikusita, hauxe

EBATZI DUT:

Saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkariak EB3-0776/04-LC espedientean hartutako Ebazpenaren aurka José Miguel Usabiaga Barcena jaunak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ezestea, errekurtsogileak gutxieneko diru-sarrerak kreditatu ez dituelako. Ebazpen horretan Donostiako udalerriko Loiolako Erriberak aldean babes ofizialeko 80 etxebizitzaren sustapenean onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrenda onartu zen.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du; hala ere, bere aurka Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian. Horretarako epea bi hilabetekoa izango da eta jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunean hasiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko irailaren 14a.

Zerbitzu zuzendaria,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.

ción, ya que según la normativa vigente no se pueden valorar los ingresos de los ejercicios anteriores o posteriores a este período, ha percibido unos ingresos de 6.443,46 euros, por tanto al no quedar acreditado el requisito de ingresos mínimos legalmente establecido, ha de quedar excluido de la presente promoción, y procede la desestimación del recurso interpuesto.

A la vista de los Fundamentos expuestos, las disposiciones legales citadas y demás concordantes y de general aplicación

RESUELVO:

Desestimar el recurso de alzada interpuesto por D. José Miguel Usabiaga Barcena contra Resolución del Delegado Territorial en Gipuzkoa de este Departamento recaída en el expediente EB3-0776/04-LC, por la que se aprueba la lista de admitidos y excluidos en la promoción de 80 viviendas de protección oficial en el área Riberas de Loyola del municipio de Donostia-San Sebastián, señalando como único motivo de exclusión «no acreditar ingresos mínimos".

La presente Resolución agota la vía administrativa, si bien cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de recepción de esta notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de septiembre de 2004.

El Director de Servicios,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.

## OSASUN SAILA

## 648

AGINDUA, 2005eko otsailaren 1ekoa, Osasun sailburuarena, itundu gabeko terapia-elkarteetan toxikomaniak sendatzeko 2005eko dirulaguntzak ezarri dituen Agindua aldatzen duena.

1996az geroztik Osasun Sailak aldez aurretik izapidetu ohi du itundu gabeko terapia-elkarteetan toxikomaniak sendatzeko dirulaguntzen deialdiaren agindua, urtarrileko lehen hamabostaldirako baliagarri izan behar baititu tratamendua behar duten pertsonen eskaerak finantzatzeko fondoak.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## 648

ORDEN de 1 de febrero de 2005, del Consejero de Sanidad, de modificación de la Orden por la que se establecen ayudas económicas para el tratamiento de toxicomanías en comunidades terapéuticas no concertadas durante el año 2005.

Desde el año 1996 el Departamento de Sanidad viene tramitando anticipadamente la Orden de convocatoria de ayudas económicas para el tratamiento de toxicomanías en comunidades terapéuticas no concertadas, dado que en la primera quincena del mes de enero debe disponer ya de los fondos correspondientes que permitan financiar las peticiones de las personas que necesiten tratamiento.

2005eko dirulaguntzen izapideak ere aldez aurretik abiarazi dira, 2004ko abenduaren 14ko Aginduaren bidez (2004-12-29ko EHAA).

Geroago, abenduaren 28ko 10/2004 Legearen bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren 2005eko Aurrekontu Orokorrak onartu ziren, eta hori dela-eta orain egokitu egin daiteke eskatzaile bakoitzari eman dakiokeen laguntzaren zenbatekoa, 1996tik aldatu ez dena.

Horrenbestez, aipatutako dirulaguntzen zenbatekoa gehitu egin da eta oraindik aurrera seiehun eta hogeita hamar (630,00) eurokoa izango da; elkartean ematen den egun bakoitzeko zenbatekoa, berriz, hogeita bat (21,00) eurokoa izango da.

Horregatik guztiagatik, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– 2004ko abenduaren 14ko Aginduko 4.1. artikulua honela geratu da:

«4. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

1.– Dirulaguntzak baremo bakarra izango du: seiehun eta hogeita hamar (630,00) euro tratamenduan ematen den hileko; gehienezko iraupena bederatzi hilabetekoa izango da.»

***Bigarren artikulua.***– 2004ko abenduaren 14ko Aginduko 13.c artikulua honela geratu da:

«Baldin eta laguntzaren titularrak tratamenduko hilabeteren bat osorik betetzen ez badu toki-aldaketa bategatik, tratamenduari utzi diolako edo bestelako arrazoiren bategatik, 21,00 euro ordainduko dira tratamenduan emandako egun bakoitzeko, batzordeak edo terapia-elkarteko arduradunak ziurtagiria eman ondoren; gero, hitzartutako dirulaguntza baliogabetuko da.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 1a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

Esta tramitación anticipada se ha realizado también para el ejercicio 2005 mediante la Orden de 14 de diciembre de 2004 (BOPV de 29-12-2004).

La posterior aprobación de la Ley 10/2004, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del Euskadi para el ejercicio 2005, permite reajustar la cantidad a conceder a cada persona solicitante de ayuda, cuantía que no había sido modificada desde el año 1996.

Consecuencia de lo expuesto, procede modificar, aumentando hasta los seiscientos treinta (630,00) euros, el importe de la ayuda económica acordada y, hasta los veintiún (21,00) euros, la cuantía por día de estancia en la comunidad.

Por todo lo expuesto,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– El artículo 4.1 de la Orden de 14 de diciembre de 2004, quedará redactado de la siguiente forma:

«Artículo 4.– Importe de la ayuda y modalidad de abono de la misma.

1.– El importe de la ayuda económica acordada se establece en baremo único de seiscientos treinta (630,00) euros por mes de tratamiento con una duración máxima de nueve meses».

***Artículo segundo.***– El artículo 13.c de la Orden de 14 de diciembre de 2004, quedará redactado de la siguiente forma:

«En el supuesto de que la persona titular de la ayuda no cumpliese la totalidad de algún mes de tratamiento, por causas de traslado, abandono y otros similares, el importe abonado sería de 21,00 euros, por día de estancia, previa certificación de la Comisión o responsable de la comunidad terapéutica procediéndose a la anulación de la ayuda acordada».

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de febrero de 2005.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.